

Gorka Urbizu

MUSIKARIA

Gomina eta behatz tartetako zaborra

Erosketa egiten ari nintzela entzun dut, saltokian irratia piztuta zeukaten eta. Esataria erdi oihuka ari zen, telebistako gomina iragarkietan bezalatsu. Zerrenda, igoerak eta jaitsierak, lehenengo postua eta antzeko hitzak gehiegitan errepikatzen dituzten irradi-kate horietako bat zen. Ni ordaintzera nihoan eta kutzazain automatikoak *piiuiiiiii!* egiten zuen jangai bakoitzaren barra-kodea irakurtzean.

Esataria irratsaio berezi bat iragartzen ari zen, azkenaldian arrakasta handia duten talde batzuen ingurukoak: “¿Todo lo que querías saber sobre la generación del flequillo?”. *Generación del flequillo*: ezinbestean gominaren iragar-kiarekin gogoratu naiz. Ezagun nituen kopetako ilea alde batera nabarmen orrazten duten taldeen ingurukoak. Ingeles musika aldizkarietan *haircore* deitzen dieten horiek dira (betiko *hardcorea* beharrean). Aitor dut, baina, gaztelera entzundakoan are nazka handiagoa sentitu dudala, esplizituagoa egin ote zaidan edo. Lortu dute, beste behin ere: balizko musika belaunaldi bat nahierara bataiatzea, ondoren etorriko diren antzeko proposamenak zaku berean sartu eta euren antenetatik produktuak barra-kode ezagun batekin saltzeko



ALEX LARRETXI

moduan: *piiuiiiiii!* Berriz ere marketin adituak musika estiloen sailkapenera emanak. Formula zaharra. Burutazio horiei bueltaka irten naiz dendatik, apur bat ernegatuta eta nerabezaroan gertatu zitzaidana gogoan...

Flashback. 90eko hamarkadako hasiera. Irratian Nirvanaren *Smells Like Teen Spirit* etengabe. Beranduago, *Heavier Than Heaven* biografia irakurtzerakoan jakingo nuen *Teen Spirit* delakoa, Kurt Cobainen lehenbiziko neskalagunak erabiltzen zuen lurrinaren izena baino ez zela. Alegia, guk “gaztediaren izpiritua” uste genuena ez zela marka ziztrin bat baino. Agian Cobain beraren abisu subliminala izango zen, horrelako etiketekin ez fidatzeko esanaz. Izan ere, handik gutxira *Teen Spirit* hori *grunge* belaunaldia bezala bataiatu zuten. Nirvana piloa maite nuen nik eta bat-batean *grunge* izatera behartuta ikusten nuen neure burua. Hori jada ez zitzaidan horrenbeste gustatzen.

Orain gutxi jakin dut *grunge* hitzaren esanahi zehatza: hala esaten omen zaio ingelesez, hanketako behatz tartetean pilatzen den zaborrari. Bada, konparazio egokia iruditut zait, horixe baitira niretzako, musika sailkatzeko saiakerak interesatu hauek: hanketako behatz tartetean pilatzen den zaborra. *Grunge*-a, besterik ez. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Batera egin genuen Alaves eta Realarena ikusteko asmoz. Irlandes modakoan, bi telebista handi parez pare. Bi jende multzo haiei begira, elkarri bizkarra emanda. Gure atzetik oihu bateratu bat: Hamiltonek beste bat jo eta kanpora. Formula bateko karrera zuten ikusgai. Realaren istripuak erakarri mututzeak Eurokopara zuzendu zidan gogoan. Antolaketarako UEFAk sortu EURO 2008 entpresaren aurrekontua, 130 bat milioi eurokoa da. Esponsorretako batek, MasterCard egindako azterketa batean, ebentoak 1.400 milioi euro bilduko omen ditu, orain lau urteko Portugalekoa baino 600 milioi gehiago. Telebista eskubideek %70

Modako pub

inguru estaliko omen dituzte, patrozinatzaileek, sarrerek eta bes-telako salmentek osatuko dutelarik gainerakoa. Partida bakoitzak 40 milioi etekina sortuko omen du, puntakoek, aurre-finalek eta finalak 60 milioi inguru erakarriko dituztelarik. Publizitateen emaitzak ere ez dira makalak, 80 bat milioiokoa baita aurreikusia duten etekina. Ikusi besterik ez dago zein diren patrozinatzaile esklusiboak: Adidas, Canon, Carsberg, Castrol, Coca-Cola, Continental, JVC, Hyundai-Kia, MasterCard eta McDonald's. Krisi ekonomikoa. Eta gu, milaeuristaz beteriko modako pubean hauen bezero, petzero, gure etorkizuna jokoan bagenuke bezala. Ama, hau mixeria. ■